



PARKE HISTORIKOA, ERASOTUA

“GLAD IS THE DAY” MUSIKA JAIALDIA DONOSTIAKO KRISTINA ENEA – GLADYS PARKEAN BIOANIZTASUNAREN KONTSERBAZIOAREN AURKAKO INGURUMEN-ERASO BORTITZ ETA JENDETSUA BIHURTU DA

Masifikazioa eta saturazioa egundokoa izan da. Parkea Bizirik-ek 18:45-ean (2024.08.04) eta, soilik Parkearen beheko aldean, 3.513 pertsona zenbatu ditu. Zifra hori, kontzertuek aurrera egin ahala, nabarmen igo da.

Antolatzaileek bisitari kopuruagatik “errekor historikoaz” harro agertu dira, fauna babestua eta ehun urtetik gorako zuhaitzak bizi diren parketik 25.000 pertsona igaro direlako. Parkeari lotutako sail edo erakunde bakar batek ere ez du Parke Historikoari egindako eraso horren aurka ahotsik altxatu.

Musikaren bolumen handiak bertako faunaren komunikazio akustikoak baliogabetu ditu, muturreko estresa sortu dielarik. Hegazti askok eta askok Parketik alde egin dute. Sorbeltzek (*Apus apus*) ere ez dute erasotako aire-espazioaren gainetik hegan egin. Egunean zehar, hegaztien kantu kopurua ia zero izan da. Oraindik bakarrik jaten eta hegan egiten ez dakiten txepetxen (*Troglodytes troglodytes*) kumeek ezin izan dute gurasoen zainketarik jaso, besteak beste, eta neurri handi batean habiatik atera eta lehenengo egunetan zero kota eta metro eta erdi arteko altueraren artean bizi baitira. Gurasoei janaria eskatzeko eta haien kokapena adierazteko igorritako txioen gainetik, bafleen muturreko kutsadura akustikoa gailendu da.

Horma-sugandila (*Podarcis muralis*) populazio urria bizi den hiru leku ezagunetako bat, zaharkina hain zuzen ere, alkohola kontsumitzearen aldeko hainbat karpek eta garagardo upel ugari hartu dute. Zaharkinen aldamenean, bafle asko, bolumena jo eta su eta jende andana. Lekuaren masifikazioak Donostia eguneko gauean Konstituzio Plazak hartzen duena gogorarazten zuen. Ez zegoen bioaniztasunerako lekurik, ezta bertan bizi, hazi eta elikatzen diren animalia eta landareentzat ere.



PARKE HISTORIKOA, ERASOTUA

Ekitaldia Donostiako Udaleko Kultura Sailak (Donostia Kultura) antolatu du, eta 12:00etatik 21:00etara zabaldu da. Europako Kultur Hiriburutzarekin lotuta, 2016an ibilbidea hasi zuenetik zortzigarren ospakizuna izan da. Musika-jaialdiak Tabakaleraren, Kutxa Fundazioaren eta Keler marka alkoholikoaren babesas jaso du. Aste Nagusian eta beste jai batzuetan bezala, Keler bezalako industria alkoholikoak, mozkin handiak lortzearen truke, gizarteak alkohol asko edatea sustatu eta normalizatzen du, askotan arazo pertsonal, familiar eta sozial larriak sortaraziz eta, kasu honetan, baita ingurumenekoak ere.

Jarduera Parke Historikoaren beheko aldean garatu da, non agertoki handi bat, tokiko moda eta artisautzako 50 postuz eta gutxienez “Keler” publizitate-marka duten 11 karpaz osatutako azoka txiki bat muntatu den. Komunak, pixatoki mugikorak, paperontziak eta bafleak sarrera nagusitik hasi eta zalditegiko zaharlinak igaro arte banatu dituzte.

Udal gobernua eta bere babesleek Parkearen barruko ekitaldia galtzada-harrizko hiritorbide bat balitz bezala kudeatu dute, basa-flora eta -faunaren etxearen ordez.

Karpa guztiek Keler-en publizitatea zeramaten, eta horietako bat adingabeentzako haur-parketik 8 metrora zegoen.

Ibilgailu asko parkera altzariak eramateko sartu dira. Musikaren bolumena eta bisitarien edukiera mugagabea basa-bizitzarako guztiz kaltegarriak izan dira.

Egun osoan zehar, FCCko langile batek, hau da, Koplowitz-tar ahizpentzako fakturazioaren emendapena, pertsona batzuek lurrera botatzen zituzten hondakinak biltzen jardun du. Hondakinen artean, zigarro-mutxikin ugari, temperatura altuak eta baso-eremu horren berezko ezaugarriak kontutan hartuta, baso-sutea pizteko-arriskua.

“Glad is the Day” “Egun zoriontsua” bezala itzul liteke. Gladys del Estal Egiako naturzalea gogorarazten duen hitz-jokoa ere bada. Tuteran egun antinuklear eta baketsu batean lagun talde batekin lurrean eserita ogitarteko bat jaten ari zela bere bizitza ostu zioten.



PARKE HISTORIKOA, ERASOTUA

Gladys informatikan lizentziaduna zen, eta kimika eta biologia bere kabuz ikasten zuen. Egiako Maria Reina ikastetxean 20:00-etatik 22:00-etara, titulurik gabeko langile klaseak Eskola Graduatua lor zezan, doako eskolak ematen zituen. Halaber, ingurumen-arloan sensibilizatzeko, haurrentzako txangoak eta tailerrak antolatzen zituen. Betarik zuenean, zentral nuklearrak eraikitzearen aldeko teknokratekin aurrez aurre eta publikoki elkarrizketatzeko, txostenak ere idazten zituen.

Bere bizi-ibilbidea ezagututa, bere izenarekin hitz-joko hau egin eta izendatu izana isekagarria da, ingurumenari dagokionez ekitaldi hau oso erasokorra baita.

Donostiako Udalari, Donostia Kulturari, Kelerri, Tabakalerari eta Kutxa Fundazioari jaialdi hau **BERTAN BEHERA UTZ DEZATELA ESKATZEN DIEGU**, giza masifikazio larriaren eta kutsadura akustikoaren ondorioz, Egiako Parke Historikoko flora- eta fauna-espezieentzako eraso zuzena baita eta, behar izanez gero, ingurumenean eraginik ez duen leku batera eraman dezatela.

Gogora dezagun Kristina Esnea – Gladys Parkea eremu babestua dela, eta bertan 71 zuhaitz-espezie eta 110 fauna espezie ornodun inguru zenbatu ditugula; horietako askok babes-irudiak dituztelarik.

Izugarri gustatzen zaigu eta asko gozatzen dugu kulturaz, musikaz, sortzaileez, jaiez, eta jendeak ondo pasatzea nahi dugu, betiere formatuak eta lekuak kalterik ez badakarkie, kasu honetan bezala, ingurumenari eta ondare kolektiboari.

Parkea Bizirik “Kukulunbera”

Egian, 2024ko abuztuaren 8an

BIDEOA YOUTUBE-n: GLAD IS THE DAY: INGURUMEN-ERASOA

<https://youtu.be/402FRcC52GY>



PARKE HISTORIKOA, ERASOTUA

GLAD IS THE DAY

IRAUNGI AK!!



Kinka LARRIAN



Lathraea zurtoinlaburra (Lathraea clandestina)

Kinka LARRIAN



Parkea bizirik
kukulunbera

Kaprikornio handia (*Cerambyx cerdo*)

info@parkeabizirik.org



Parkeaz, bere
historiaz, floraz eta
faunaz gehiago eta
BENETAN jakin nahi
baduzu...

LIBURU

IKUSGARRIA

Idatziezaguzu:

KRISTINA ENEA – GLADYS PARKEA Liburua

info@parkeabizirik.org